

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, LEKEITIOKO UDALAREN 2012-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Lekeitioko Udalaren 2012ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute Osoko kideek.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak Udala, bere toki erakunde autonomoak eta sozietate publikoa barne hartzen ditu; txostenak legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, administrazioko kontratazio eta dirulaguntzaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezketasunaren atalean, Epaitegiak udalaren, bere erakunde autonomoen eta sozietate publikoaren jarduerari buruzko iritzia orokorra plazaratu du eta ekonomia-finantza jarduera arautzen duen araudia zuzentasunez bete dutela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Honela, langileen atalean azpimarratzekoa da Udalak eta Kirolaren Udal Erakundeak, hurrenez hurren, bi eta sei langile kontratatu dituztela, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratuta.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Udalak zenbaitetan urratu egin dituela administrazioko kontratazioa arautzen duten arauak. Hona hemen adierazgarrienak: ez da argitaratu BOE eta DOUEn bide garbiketa kontratuaren lizitazioa; hainbat hornidura eta zerbitzuen kontratazioetan publizitate eta lehia printzipioak urratu dira; eta gastua obrak gauzatu ondoren onartu da.

Udalaren, toki erakunde autonomoen eta sozietate publikoaren Kontu Orokorrei eta dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 0,3 milioi euroan gehitu dutenak eta Udalaren Funts Propioak 0,3 milioi euroan murriztu dituztenak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio, transferentzia, diru-laguntza eta beste hainbat arlotan.

Amaitzeko, Udalaren finantza egoerari dagokionez adierazi da 2010-2012 aldian sortutako aurrezki garbia nabarmen murriztu dela itunpeko zergen diru-bilketak behera egin izanaren ondorioz; zerbitzu kostuei, berriz, bere horretan eutsi zaie; itunpeko zergetan toki administrazio guztiek hartzen dute esku. Geldikinak kopuru txikia du aztertutako aldi amaieran eta zorpetze-maila garrantzitsutzat hartu behar da. Horregatik guztiagatik udal zerbitzuetan egiten diren inbertsioak beste erakunde batzuen diru-laguntza bidez eta autofinantzaketa bidez soilik finantza daitezke; horrek zerbitzuen maila eta/edo kostuen gainean aritzea eskatzen du.